

Jai jasangarriagoak

Beste urte batez, guztien laguntzaz Ibarreko herrietako jaiak pixka bat jasangarriagoak izango dira.

Hondakinak bereizteko puntu gehiago egongo dira: bertako produktuak, produktu ekologiko eta bidezko merkataritzako produktuak, berriz erabiltzeko edalontziak, baxera konpostagarriak (landare-zuntzez eginak)...

Ongi pasatzea eta ingurumena zaintzea eskutik joan daitezke.

JAI ZORIONTSUAK guzietan!!

BEREIZI!

Berriz erabiltzeko edalontziak edukiontzi marroira.

Baxera konpostagarria edukiontzi berdera, hondakine-na.

Ontzi, poto, plastikoak... edukiontzi horira.

Beira edukiontzi berdera.

Papera, kartoia eta egunkariak, urdinera.

**Fijatu zaituz karteletan, oso erraza da.
Birziklatzea zure esku dago.**



Omenaldia Ibarreko ingurumenaren alde eskuzabaltasunez lan egiten duten pertsoneri

Pasa den maiatzak 27an, Ibarreko Ingurumenaren Astearekin batera, Ibarrean ingurumenaren babes eta zaintzan eskuzabaltasunez lanean ari diren 3 pertsoneri oroitzapenezko xafiak eman zitzaizkien.

Haritz Sarasa: Ibarreko hegaztien zaintzaren alde egindako lanagatik.

Jesús Sukuntza: bizikleta erabiltzeko sustapenari emandako laguntzagatik.

Urko Baztán: Labianoko komunitate-konposatzaileria mantentzeko egiten duen lanagatik.

Eskerrik asko hiruei!



NATURGUNEA

Gaztelekua (Aranetxea).

Kale Nagusia 2 bis.

Jendaurreko ordutegia:
astearteak eta ostegunak:

11:30 - 13:30

Tel.: 948 244 946

medioambiente@aranguren.es



Hondakinei buruzko ale berezia

Taxoaren komunitate-konpostatzailea jarri berri da

Pasa den ekainaren 13tik martxan dago Taxoaren komunitatean konpostatzeko gunea. Gune hori Iruñerriko Mankomunitateak kudeatzen du eta borondatez lan egiten duen pertsona batek, Patxi Araizek, egiten dio mantentzea.

Hala desio duten Taxoaren auzokide guztiek gune honetan utzi ahalko dituzte beren sukaldeetan sortutako hondakin organiko guztiak. Horrela, konposta sortzen laguntzeaz gain, hondakin horiek zaborteetan bukatzea ekidingo dute. Zalantzarik gabe, hondakinak erantzukizunez kudeatzeko beste urrats bat da.



Punto Limpio
Garbigunea

Garbi guneak kiroldegiko erretegietan

Pasa den ekainetik hondakin guztiak ongi berezituak izatea posible egiten duten garbi guneak jarrita daude. Hemen-dik zure laguntza eskatzen dizugu.

Olio birziklatzea elkarteetan

Aranguren eta Labianoko elkarteetako sukaldeetan erabilitako olio jasotzeko zerbitzu bat dute eta nahi duten biztanleek erabili ahalko dute.

Ekimen hau hitzarmen baten fruitua da; Naturgunearen bidez Udaleko Ingurumen Zinegotzigoak, elkarte horiekin eta Ekogras enpresarekin sinatutako hitzarmen baten fruitua.

Modu honetan auzokideei lagundu egiten diegu gure urentzako hain kutsakorra eta, aldi berean, biodiesela sortzeko hain erabilgarria den hondakin honetaz libratzen.



Elkartasun tapoiak

Eskerrik asko tapoiak biltzeko Ibarreko puntu guztietara (Kultur Etxea, kiroldegiko kafetegia eta kontsultategia) tapoiak ekartzen dituzuenek. 6 hilabetetan 130 kilo tapoi biltzea lortu dugu; eta dagoeneko, beren balioztatzeaz arduratzen den enpresari eman dizkiogu. Kanpaina honen aurrera pausuei buruzko informazioa ematen jarraituko dugu.



Irulegiko gaztelura gidatutako bisitak

Abuztuaren 5ean Irulegiko gazteluaren hondarretara bisita gidatua egingo da.

Indusketen egoera eta gazteluaren eta bertako jendearen historia lehen eskutik ezagutu nahi dutentzako edota Lakidain mendia-
ren gailurretik dagoen ikuspegi-
az gozatu nahi dutentzako aukera paregabea da.

Hitzordua 10:00etan Lakidainen izango da. Zapata erosoak ekartzea aholkatzen dugu. Ez da egokia mugikortasun mugatuko pertsonentzako edo aulkitxoan doazen haurrentzako.



Interesa dutenek 012ra abuztuaren 2a baino lehen deitu beharko dute. Familia osoarentzako jarduera.

Hiritik bizikletan ibiltzen ikasteko ikastaro teoriko praktikoa.

Iraila eta urria

Garraibide Osasungarrien Elkartek (GOE) bizikletan ibiltzen badakiten 16 urtetik gorakoentzako ikastaro hauek antolatzen ditu.

Hurrengo tailerra iraileko eta urriko ostiraletan izango da: 7an, 14an, 21ean, 28an eta urriaren

5ean eta 19an, 18:30etik 20:30era, Iruñean. Ikastaroa doakoa da eta plazak mugatuak dira.

Izena eman nahi baduzu, deitu GOEra (609915209) irailak 4a baino lehen.

Aranguren Ibarreko denbora bankua

Ibarrean denbora banku baten sorrera sustatzeko asmoz, kafe-hitzaldi informatibo bat egingo da irailak 26an, 19:00etan, Kultur Etxean.

Denbora banku bat ondasun eta zerbitzuen elkartruckerako tokiko sare bat da (hizkuntza klaseak, konponketak, brikolajea, etxeko lanak, informatika, ikastaroak, tailerrak, masajeak... etab.). Sare horretan moneta denbora da eta ez dirua. Erabiltzaileak web-orri batean izena ematen dute eta denbora elkartrukea norbanakoen artean egiten da: nik gela bat margotuko dizut, zuk yoga klase bat emango didazu...

ZAKATINA. Dirurik gabeko azoka.

Irailak 23an, igandea, beste Zakatin bat ospatuko dugu. 12:00etatik 14:00etara Mutiloako Mutiloa plazan.

Hurbildu eta ekarri behar ez duzun **baina egoera onean dagoen** eta beste norbaitek erabili dezakeela uste duzun hori dena. Ziurrenik zuk ere topatuko duzu eraman nahiko duzun zerbait: arropa, liburuak, etxetresna elektriko txikiak, jostailuak...

Aurrekoetan bezala, haur eta helduentzako doako tailerrak egongo dira.

OHAR GARRANTZITSUA: Gauzak gordetzeko lekurik ez dagoenez, Zakatina bukatzen denean gauza-

ren bat mahai gainean geratzen bada, ekarri duenak eraman beharko du.

Zakatina antolatzen parte hartu nahi duzu?

Zakatinan dauden pertsonen esku-zabaltasunez egiten dute lan, baina beti behar izaten dira esku gehiago: mahaietan egoteko, haur edo helduekin tailerrak egiteko, mahaiak jarri edo kentzeko... edozein gauza, laguntza guztia ongi etorria izanen da. Bakoitzak ahal duen neurrian eta ahal duen denboran zehar.

Parte hartu nahi baduzu, deitu 665862118 telefonora (Mila)

Ibarreko Mugikortasun Jasangarriaren eguna. Atera kalera zure bizikleta. Familia topagunea

Datorren irailak 30ean, igandea, egun hau ospatuz, Ibarrean bizikletaz mugitzen garelara adierazi nahi dugu.

Hitzordua 11:00etan Mutiloa plazan izango da.

13:00etan Eskolan hamaiketako egingo dugu.

Gainera, etortzen diren guztiei 2012ko bizikleta tolesgarrien zozketarako zigitatutako bi txartel emango zaizkie.



Lehiaketak

Aranguren Ibarreko Ingurumenari buruzko argazki lehiaketa

Aurtengo lema **Arangurengo Ibarra eta bertako jendea** izango dela gogorarazten dizugu. Argazkiak aurkezteko epea irailaren 24tik urriaren 19ra irekita egonen da. Eskatu oinarriak udaletxean edo jaitsi webgunetik: www.aranguren.es

Lehiaketa: ezagutu ibarra

Zer den baldin badakizu edo argazkia non hartua izan den baldin badakizu, idatzi e-posta bat edo bidali gutun bat Naturguneara.

Irailaren 15a baino lehen bidali eta asmatutako erantzun guztien artean, birziklatutako olio egindako xaboi naturalen bi sorta zozketatuko dira.



Ba al zenekien...

Zolinako kontzejuko etxeari egin berri zaion birgaitzean etxaurreko harrien artean belatzak habia egiteko bi leku egokitu direla? Azken berrien arabera, dagoeneko betetzen ari dira. Zergatik ez zara ikus-tera hurbiltzen? Jar zaituzte zentzuzko distantzia batetara, eseri zaituzte, pazientzia pixka bat... eta agian ikusteko aukera izango duzu.

Zolinako belatzak

Belatz gorria, *Falco tinnunculus*, eguneko hegazti harraparia da eta habia zuhaitz zaharren enborretan edo harrobi edota erai-kinen zirrikituetan egiten du.

Nekazaritzarako oso hegazti garrantzitsua da, sagu, arratoi, sator eta intsektu kaltegarriak jaten baititu.

Bere hegaldia oso berezia da, bere isatsa abaniko bat bezala zabaldua eta hegazkada bizkorrak ematen dituen bitartean, lurrian dagoena behatuz eta zelatatuz bilatzen baititu bere harrapakinak.

Hegazti harrapari guztiak bezala, babestua dago. Belatz gorria, zehazki, Arriskuan dauden Espezieen Katalogo Nazionalen Interes Berezikiko* espezie gisa jasota dago.

Bere arrisku nagusiak ehiza, bere habien suntsiketa edo ebastea, linea elektrikoetan gerta dakioken elektrokuzioa, plagiziden erabilera eta nekazaritzako teknika berrien erabilera dira.



* Espezie edo populazio bat arriskuan egon gabe "interes berezikoa" dela esaten denean, bere balio zientifiko, ekologiko, kultural edo berezitasunagatik zainketa berezia merezi duela esan nahi izaten du.

